EBAZPENA, 2002ko abuztuaren 1ekoa, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearena, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko martxoaren 5eko Aginduan jasotako diru-baliabideen zenbateko berria argitaratzen duena. Izan ere agindu horretan, urriaren 24ko 213/2000 Dekretuaren II. kapituluan aurreikusitako nekazaritza eta ingurumenari buruzko laguntzetarako deialdia egin zen 2002ko ekitaldirako. 16545

# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### KULTURA SAILA

IRAGARKIA, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroan (Kultur Saila) diapositiba formatuan dauden argazki-fondoak zentro horrek berak kudeatzen duen Irudi Katalogoan sartu eta artxibatuko dituen enpresa bat kontratatzeko esleipenaren berri emateko dena (K-16/2002 espedientea). 16546

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, Elizako Zubia-Ibarra Auzoa tartean, Zornotzako Saneamenduaren. (Kolektore Orokorrak) obrei buruzkoa. 16547

# Xedapen Orokorrak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-5129

199/2002 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan Programa arautzen duena.

2000ko irailaren 29ko EHAAn (188 zk.), irailaren 19ko 182/2000 Dekretua argitaratu zen, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan Programa arautu zuena. Programa bi urtetan erabili da, eta ebaluatu ostean,

RESOLUCIÓN de 1 de agosto de 2002, del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogidos en la Orden de 5 de marzo de 2002, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se convocan, para el año 2002 las ayudas agroambientales previstas en el capítulo II del Decreto 213/2000, de 24 de octubre. 16545

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del concurso para la incorporación y archivo de los fondos fotográficos en formato diapositiva existentes en el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco (Departamento de Cultura) en el Catálogo de Imágenes gestionado por el mismo (Expte. K-16/2002). 16546

### DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

ANUNCIO relativo a las obras de Saneamiento de Amorebieta. Colectores generales. Tramo: Puente de la Iglesia-Barrio de Ibarra. 16547

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-5129

DECRETO 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa AUZOLAN, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión.

En el BOPV número 188, de 29 de septiembre de 2000, se publicaba el Decreto 182/2000, de 19 de septiembre, por el que se articulaba el Programa AUZOLAN dirigido a la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión que tras la evaluación

araudi berri hau jarriko da haren ordez, berrikuntza batzuk baititu.

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak eta Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legeak laguntza ekonomiko eta baliabide sozial batzuk arautu zituzten, bazterketa-egoerak saihesteko eta bizitza independente bat egiteko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez duten pertsonak laneratzen laguntzeko.

Lege horretan, honela definitzen da gizarte bazterkeria: bazterkeria gizarte-eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da; eskubide horien artean, lanerako eskubidea nabarmentzen da gehienbat, baina beste batzuk ere hor sartu beharrekoak dira: hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea eta gizarte-babesa jasotzeko eskubidea.

Abenduaren 27ko 10/2000 Legeak Oinarrizko Errenta sartu zuen, maiatzaren 22ko 12/1998 Legean arautu zen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren ordez. Oinarrizko beharrizanei eta gizarteratu eta lanmerkatuan sartzeko prozesuaren ondorioz sortutakoei aurre egiteko diru-baliabide nahikorik ez dutenentzat izango da errenta.

Dudarik gabe, bazterkeria prozesu eta egoerak eta ondorioz, gizabanakoaren eta gizartearen arteko lokarrien hausturak gizon-emakumeek ekoizpen prozesuan parte ez hartzetik etortzen dira.

Gurea bezalako gizarte moderno batean, lana da gizartearekiko eskubideak eta betebeharrak eskuratzeko bitarteko nagusia, bai eta gizarteak gizabanakoarekiko eskubideak eta betebeharrak eskuratzeko ere. Hala ulerturik, lanerako eskubidea herritartasun osoa lortzeko ezinbesteko baldintza bihurtzen da, eta bere esanahi guztia hartzen du eskubide politiko gisa.

Nabarmen geratzen da lanaren garrantzia esatean lan-merkatuan ez parte hartzeak edo bazterreko partehartzea besterik ez izateak ia ezinbestez dakarrela bazterketa prozesu baten hasiera, eta horrek eragin zuzenak izaten dituela beste gizarte-eskubide batzuk erabiltzen. Dinamika horretan, gabeziak eta dependentziak ez dira besterik gabe metatu edo pilatzen; aitzitik, batak bestea indartzen du.

Bereziki, Oinarrizko Errenta jasotzen denbora gehien daramaten onuradunetako batzuek urte asko eman dituzte lan-merkatutik aparte. Komenigarri da, beraz, pertsona horiei enplegurako aukera bat ematea, aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratu batez besterik ez bada ere. Lan-merkatutik bazterturiko pertsonek, lanaz gain, prestakuntza-prozesu bat jasoko dute, hori ere gizarteratze-prozesu edo ibilbidearen zati da eta.

realizada de sus dos primeros años de ejecución queda ahora sustituido por esta nueva regulación que incorpora algunas novedades respecto de la regulación inicial.

La Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social y la Ley 10/2000, 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales regulan los instrumentos de carácter social y las prestaciones económicas necesarias para prevenir el riesgo de exclusión y para contribuir a la inserción de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para desarrollar una vida independiente.

En la Ley 12/1998, de 22 de mayo, se define la exclusión social como la imposibilidad o la incapacidad de ejercer los derechos sociales. Entre dichos derechos se destaca, fundamentalmente, el derecho al trabajo, pero también se deben incluir otros, como el derecho a la educación, a la formación, a la cultura, a la salud, a una vivienda digna, a la protección social.

La Ley 10/2000, de 27 de diciembre, introdujo la Renta Básica (RB), en sustitución del Ingreso Mínimo de Inserción (IMI) regulado en la Ley 12/1998, de 22 de mayo, cuyos beneficiarios son aquellas personas que carecen de recursos económicos suficientes para poder hacer frente a las necesidades básicas y a las derivadas de un proceso de inserción social y laboral.

Es indudable que, en gran medida, los procesos y las situaciones de exclusión, la ruptura del vínculo existente entre el individuo y la sociedad, se derivan de su no participación en el proceso productivo.

En una sociedad moderna, como la nuestra, el trabajo constituye el medio por excelencia de adquirir derechos y deberes respecto a la sociedad y de que ésta los adquiera respecto al individuo. Así entendido, el derecho al trabajo se convierte en condición «sine qua non» de la plena ciudadanía, y adquiere todo su significado como derecho político.

Se resalta la importancia del trabajo al afirmar que la no participación o la participación residual en el mercado de trabajo determinan, casi necesariamente, el inicio de un proceso de exclusión con consecuencias directas en el ejercicio de otros derechos sociales. En esta dinámica, las carencias y las dependencias no sólo se acumulan o yuxtaponen, sino que se refuerzan mutuamente.

En particular, algunos de los beneficiarios más cronificados en la prestación de la Renta Básica han permanecido alejados del mercado de trabajo durante ya muchos años. Resulta conveniente, por tanto, mantener la oportunidad de empleo a esas personas aunque sea mediante un contrato de trabajo de carácter temporal y a tiempo parcial, combinado con un proceso formativo para las personas excluidas del mercado laboral como parte de su propio proceso o itinerario de inserción.

Horren haritik, Eusko Legebiltzarrak enplegu eta giza bazterketari buruz hartutako erabakiak direla eta, eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzari Autonomia Erkidegoko udalekin batera programa berritzaileak abian jartzeko, orduko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren (IMI) hartzaile edo kide onuradun bakoitzak enplegu bat lor zezan, gizarteratze-ibilbide baten bitartez eta prestakuntzatik abiatuta. Helburu hori IMIren hartzaileentzat eta horien bizikidetzako unitate ekonomiko independenteko kideentzat zen.

Auzolan programa baztertuta bizi diren edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat da. Hauek dira pertsona horiek:

– Oinarrizko errenta jasotzeko eskubidearen titularrak.

– Oinarrizko errenta jasotzeko eskubidearen titularraren bizikidetzako unitate ekonomiko independenteko kideak.

– Baztertze arriskuan dagoen edonor, baldin eta Gizarteratzeko Hitzarmenak arautu zituen urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretuaren babesean gizarteratzeko hitzarmenik sinatu badu; hitzarmenean, epe ertain edo luzera begira egindako eskuhartze edo jarduera espezifikoren bat zehaztu beharko da.

Auzolan programa tresna eraginkor bihurtu nahi da, oinarrizko gizarte-zerbitzuek gizarteratzeko hitzarmenak egiterakoan erabil dezaten. Hitzarmen horien bidez bideratzen eta lotzen da gizarteratzeko eta laguntzeko prozesu guztia.

Onura sozialeko enplegutzat joko da, programa honen ondorioetarako, babestu gabeko edo babes eskaseko gizarte-beharrak atenditzera bideratuta dagoena eta gizartearen ongizatean eragina duena.

Enplegu hori bultza dezakete entitate publiko nahiz pribatuek, Foru Aldundiek, udalek, tokiko garapen agentziek, ekiko lankidetza entitateek eta bestelakoek, baldin eta irabazi asmorik gabekoak badira eta euren helburuen artean arauan zehazturiko jarduera-eremuetakoren bat badago.

Programaren babesean egindako lan-kontratuak ezingo dira izan enplegua eskaintzen duen entitateko ohiko jarduerak betetzeko, ez eta lan arruntetan ari diren langileak ordezteko ere.

Aurreko urteetan Auzolan programaz lortutako emaitzak ikusita, esan daiteke tresna baliagarria izan dela partaideek gaitasun profesional egokia jasotzeko, eta horrela, pertsona horien lan-aukerak ugaritzeko, autoestima hobetzeko eta lan munduarekiko lotura indartzeko. Izan ere, jendea lanean hasteko bide bat baino gehiago da programa: jendea lan-merkatu normalizatuan sartzeko moduan uzten duen baliabide bat da.

El objetivo del Programa AUZOLAN derivaba de las actuaciones del Parlamento Vasco, en las que, con motivo de unas resoluciones adoptadas sobre el empleo y la exclusión social, instaba al Gobierno Vasco a poner en marcha programas innovadores, en colaboración con los municipios de la Comunidad Autónoma, con el objetivo de que cada perceptor o miembro beneficiario del entonces denominado IMI transitara por un itinerario de inserción que partiendo de la formación permitiera hacerle desembocar en el empleo. Dicho objetivo debía hacerse extensivo tanto al perceptor del IMI como a los miembros de su unidad de convivencia.

El programa AUZOLAN va dirigido a personas en situación o riesgo de exclusión social. En la actualidad se entiende como tales a las siguientes personas:

– Titulares del derecho a la Renta Básica.

– Miembros de la unidad de convivencia del titular del derecho a la Renta Básica.

– Cualquier persona en situación de riesgo de exclusión con la que se haya suscrito un Convenio de Inserción al amparo de lo establecido en el Decreto 1/2000, de 11 de enero, por el que se regulan los Convenios de Inserción, en los que se concrete una intervención o actuación específica para la inserción enfocada en el medio y largo plazo.

El programa AUZOLAN pretende continuar siendo un recurso útil puesto a disposición de los Convenios de Inserción que deben ser utilizados desde los Servicios Sociales de Base. A través de dichos convenios se articula todo el proceso de acompañamiento e incorporación social.

Se entiende como empleo de utilidad social, a efectos de este programa, el que va dirigido a dar cobertura a necesidades de tipo social no cubiertas o atendidas de modo deficitario y con incidencia en el bienestar de la sociedad.

Dicho empleo puede ser promovido por entidades publicas o privadas, Diputaciones Forales, Ayuntamientos, Agencias de desarrollo local, entidades colaboradoras de servicios sociales y otras entidades, sin ánimo de lucro, entre cuyos fines se encuentre alguno de los ámbitos de actividad que se indican en la norma.

Los contratos laborales realizados, en ningún caso, podrán suponer cobertura de actividades normales o sustitución de personal al servicio de las tareas habituales de la entidad oferente del empleo.

A la vista de los resultados obtenidos con el programa AUZOLAN en los años anteriores puede decirse que se ha mostrado como un instrumento útil para que los participantes adquieran unas competencias profesionales válidas para mejorar su ocupabilidad, su autoestima y su propia reafirmación profesional. En este sentido, el programa más que conseguir la inserción laboral en sí mismo se configura como una herramienta que posiciona a la persona en situación de incorporarse al mercado laboral normalizado.

Programa bi urtetan gauzatu da, eta epe horretan ikusi denez, egoki da aurreko araudian berrikuntza batzuk sartzea. Berrikuntzarik garrantzitsuena prestakuntza indartzea izan da, koordinatzaile-hezitzaile, tutore edo laguntzaile baten figura sartu baita, onartzen den proiektu bakoitzeko lan-jarduera egitean taldea koordinatzeaz arduratu dadin.

Izan ere, programa burutzen den artean, erreferente izango den pertsona bat egongo da, gizarte zerbitzuekin koordinatuta lan eginez, lan-jarduera egiterakoan taldeko partaide guztiei lagunduko diena. Amaitzerakoan, prozesu guztian lortutako gaitasun sozio-profesionalei buruzko balantze bat egingo du, eta hori gizarte-langileari emango dio. Horrek, balantzetik abiatuta, honako hauetara bideratuko du bere eskuhartze profesionala: gizarteratze-enpresetara, lanerako prestakuntzara, autoenplegura, lan-merkatu normalizatura edo beste jarduera batzuetara.

Onuradunak hautatzeko lehentasunezko irizpideen artean, beste bat sartu da: guraso bakarreko familia bateko kide izatea. Gainera, diru-laguntzak moneta berrian jarri dira, diru-laguntzak kudeatzeko administrazio-unitateak Sailaren egitura organiko eta funtzional berrira egokitu dira, eta hauxe adierazi da espreski: diruz lagun daitezkeen proiektuek irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 ekintza positiboko neurriak eduki beharko dituzte. Eta horixe baloratuko da.

Nabarmentzekoa da, halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuek nahitaez Lanbide Orientazioko Zerbitzuen laguntza izan beharko dutela hautagaiaren profil pertsonala eta profesionala eskainitako lanaren profilera nola egokitzen den baloratzerakoan. Izan ere, Auzolan programaren emaitzak baloratzerakoan ikusi denez, lanbide orientazioko zerbitzu baten laguntza izan dutenek emaitza hobeak lortu dituzte. Gainera, dekretu honek aurtengo programarako deialdia jasotzen du, urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak babestuta.

Aldaketa berri horiek ez dute aldaketa handirik eragin aurreko araudiaren funtsean, baina egoki iritzi zaio programaren araudiaren testua beste dekretu baten biltzeari, irakurtzeko eta ulertzeko errazagoa izan dadin.

Programaren interes orokorra ikusita, dekretu honetan arautzen den laguntza-programa zuzeneko ekintzatzat deklaratu da Lehen Xedapen Gehigarrian, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 c) artikuluan jasotakoaren arabera.

Tras la experiencia de los dos primeros años de ejecución del programa resulta conveniente introducir novedades respecto a la regulación anterior. La principal tiene que ver con el reforzamiento del papel formativo de la actuación introduciendo la figura de un coordinador-educador, tutor o acompañante que durante la fase de realización de la actividad laboral de cada proyecto aprobado se responsabilice de la coordinación del grupo.

Así, durante el proceso de ejecución del programa existirá una persona de referencia que desarrollará una función de coordinación con los servicios sociales y una función de apoyo y acompañamiento de cada uno de los integrantes del grupo en el periodo de realización de la actividad laboral. A su finalización realizará el Balance de competencias socio-profesionales adquiridas durante todo el proceso que devolverá al Trabajador Social para que a partir del mismo, éste reoriente su intervención profesional bien hacia acciones de empresas de inserción, la formación ocupacional, el autoempleo, el mercado normalizado de trabajo u otras actividades.

También se ha introducido entre los criterios de prioridad para la selección de las personas beneficiarias la pertenencia a una familia monoparental, la fijación de las cuantías económicas en la nueva moneda, la adaptación de las unidades administrativas de gestión de las subvenciones a la nueva estructura orgánica y funcional del Departamento, y la mención expresa de que los proyectos susceptibles de subvención contengan las necesarias medidas de acción positiva en los términos de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, que serán posteriormente valorados en la medida de su debido cumplimiento.

Conviene destacar también como novedad que la valoración del grado de idoneidad del perfil personal-profesional de la persona candidata con el perfil del empleo ofertado, a realizar por los Servicios Sociales de Base deberá contar necesariamente con la ayuda profesional del Servicio de Orientación para el empleo correspondiente, ya que en la evaluación de los resultados del programa AUZOLAN realizados hasta ahora se ha observado que los que habían contado con la asesoría del citado Servicio de Orientación para el Empleo habían obtenido mejores resultados. En el presente Decreto se incluye, además, la convocatoria del programa para el año actual, avalada por la Ley 1/2002, de 23 de enero.

Aunque las modificaciones introducidas no suponen una variación sustancial de la regulación anterior se ha considerado oportuno, a efectos de facilitar su lectura y comprensión, recoger en un nuevo Decreto todo el texto de la normativa del programa.

Debido al interés general de este programa, y de conformidad con lo previsto en el artículo 7.º c) 1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organismos Forales de sus Territorios Históricos, el programa de ayudas regulado en el presente Decreto se declara como acción directa en su Disposición Adicional Primera.

Zehatz dezagun, azkenik, sail honen asmoa dela baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko politikaren diseinuari gaur eguneko egitura-elementuekin eustea hurrengo urteetan. Horregatik jo da eraginkorragotzat Dekretuaren iraunaldia mugagabea izatea.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak proposatuta, 2002ko uztailaren 30eko bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea.

1.– Dekretuaren helburua da Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez eman ditzakeen diru-laguntzak arautzea, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei gizarte onurako enplegu bat eskaintzeko. Horretarako, prestakuntza-prozesu bat eta lana uztartuko dira, aldi baterako eta lanaldi partzialeko lan-kontratuen bidez.

2.– Helburu hori lortzeko, programak jarduera hauek hartzen ditu:

a) Hasierako prestakuntza.

b) Lan-kontratua.

c) Laguntzeko prestakuntza.

d) Lanerako prestakuntza.

e) Bereganatutako gaitasunen balantzea egitea eta laneratzeko programa bat zehaztea.

f) Tutoretza eta laguntza.

3.– Auzolan programarekin oinarrizko gizarte-zerbitzuei tresna baliagarri bat eman nahi zaie, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat gizarteratze-hitzarmen banakakoak egin ditzaten, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legearen eta Gizarte-Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen babesean.

4.– Dekretu honen ondorioetarako, onura sozialeko enplegutzat joko da, entitate publikoek nahiz irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek bultzatutakoa izanda, babestu gabeko edo babes eskaseko gizarte-beharrak atenditzera bideratuta dagoena eta gizartearen ongizatean eragina duena. Gizarte onurako enplegu hori gauza daitekeen jarduera-eremuen artean, honakoak ditugu:

a) Udal edo auzo behartsu edo azpigaratuetako etxebizitzak eta landa eta hiri ingurua hobetzea eta zaharberritzea.

b) Hirugarren eta laugarren adinekoak atenditzea.

Por último, es objetivo de este Departamento mantener el diseño de esta política de inserción laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión con sus actuales elementos estructurales durante los próximos años, razón por la cual se ha estimado más operativo mantener la vigencia del Decreto con carácter indefinido.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de julio de 2002,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– El objeto del presente Decreto es la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, podrá otorgar para proporcionar, a las personas en situación o riesgo de exclusión social, una oportunidad de empleo de utilidad social, mediante un proceso formativo combinado con una práctica laboral a través de contratos de trabajo de carácter temporal, a tiempo parcial.

2.– Para el logro de dicho objeto el programa contemplará las siguientes acciones:

a) Formación inicial.

b) Contrato de trabajo.

c) Formación de apoyo.

d) Formación ocupacional.

e) Balance de competencias adquiridas y concreción de un programa de Inserción Laboral.

f) Tutoría y acompañamiento.

3.– Este programa, que se denominará AUZOLAN, tiene como objetivo el constituirse en recurso útil a disposición de los Convenios de Inserción personalizados que se vayan elaborando desde los Servicios Sociales de Base con las personas en situación o riesgo de exclusión social, al amparo de la Ley 10/2000, de 27 de diciembre de Carta de Derechos Sociales y de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social.

4.– A los efectos del presente Decreto, se entiende por empleo de utilidad social aquél que, promovido por entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro, pretende dar cobertura a necesidades de tipo social no cubiertas, o atendidas de modo deficitario, y con incidencia en el bienestar de la comunidad. Entre los ámbitos de actividad en que puede concretarse el empleo de utilidad social están los siguientes:

a) Mejora y rehabilitación de las viviendas y del entorno rural o urbano de los municipios o barrios más desfavorecidos o infradesarrollados.

b) Atención a tercera y cuarta edad.

c) Talde behartsuenak zaindu eta laguntzea: ezintasun fisiko edo psikikoren bat dutelako bizimodu independentea egiterik ez dutenak, edo gaixotasun kronikoa dutenak.

d) Kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea.

e) Baliabideak birziklatzea eta berrerabiltzea.

f) Arte eta kultur ondarea berreskuratzea.

g) Herritarrentzako guneak mantentzea.

h) Turismo, aisialdi eta kirolarekin loturiko jarduerak.

i) Natura zaintzea: zuhaitz guneak, animalia espezieak, ibaien eta kostaldearen garbiketa.

*2. artikulua.*– Entitate onuradunak eta betebeharrak.

1.– Dekretu honetan jasotako diru-laguntzen onuradun izateko, eskabidea egin beharko da. Duten izaera juridikoa gorabehera, irabazi asmorik gabeko entitate pribatu edo publiko hauek izan daitezke onuradun:

a) Foru Aldundiak.

b) Udalak edo udal-mankomunitateak.

c) Ekonomia-garapen eta enplegurako tokiko agentziak.

d) Gizarte-Zerbitzuen entitate laguntzaileak, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeko 25. eta 26. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

e) Irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuk, baldin eta helburuen artean Dekretu honetako 1.4. artikuluan aipatutako jarduera-eremuren bat baldin badute.

2.– Entitate onuradunek baldintza eta betebehar hauek bete beharko dituzte:

a) Egunean izan beharko dituzte bai zerga-betebeharrak bai Gizarte Segurantzari edo dagokion aurreikuspen sozialeko entitateari egin beharreko ordainketak, dekretu honetako 15. artikuluan agindutakoaren arabera.

b) Diru-laguntzak emateko eta, hala dagokionean, ordaintzeko, aldez aurreko baldintza da amaiturik egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko edo antzeko diru-laguntzen esparruan hasitako eta oraindik izapideetan dagoen edozein prozedura, diruitzultzekoa edo zehapenekoa izan.

c) 3.1 artikuluko a), c), e) eta f) idatz-zatietan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak garatzeko, entitate aholkulari homologatu baten laguntza profesionala izan beharko dute. Araudi espezifiko bat ezarriko da entitate horiek homologatzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren agindu baten bidez.

c) Cuidado y ayuda a grupos desfavorecidos: personas dependientes por discapacidad física o psíquica, o en situación de enfermedad crónica.

d) Promoción de la cultura, la educación y la salud.

e) Reciclaje y reutilización de recursos.

f) Recuperación de arte y patrimonio.

g) Mantenimiento de espacios públicos.

h) Actividades relacionadas con el turismo, el tiempo libre y el deporte.

i) Conservación de la naturaleza: masas arbóreas, especies animales, limpieza de ríos y costas.

*Artículo 2.*– Entidades beneficiarias y requisitos.

1.– Podrán ser beneficiarias de las ayudas a las que se refiere el presente Decreto, previa solicitud cursada al efecto, las siguientes entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro, constituidas bajo cualquier forma jurídica:

a) Diputaciones Forales.

b) Ayuntamientos o Mancomunidades de Municipios.

c) Agencias de Desarrollo Económico y Empleo locales.

d) Entidades colaboradoras de servicios sociales, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 25 y 26 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales.

e) Otras entidades sin ánimo de lucro, entre cuyos fines se encuentre alguno de los ámbitos de actividad relacionados en el artículo 1.4 del presente Decreto.

2.– Las entidades beneficiarias deberán cumplir con las siguientes condiciones y requisitos:

a) Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y/o Entidad de Previsión correspondiente en los términos previstos en el artículo 15 del presente Decreto.

b) La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

c) Para el desarrollo de las acciones formativas previstas en el artículo 3.1, letras a), c), e) y f) deberán contar con el apoyo profesional de una Entidad Consultora Homologada. Mediante Orden del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social se establecerá una regulación específica de homologación de estas Entidades.

d) 3.1 artikuluko d) idatz-zatian aurreikusitako lanerako prestakuntza-jarduerak garatzeko, aukerakoa izango dute beren baliabideak erabiltzea edo prestakuntza entitateen lankidetza izatea.

e) Kontratazio aldirako, kontratatutako pertsonak lanean jartzeko eta ikuskatze eraginkorra egiteko antolatze-gaitasuna izan behar dute.

f) Kontratazio-aldian tutoretza eta laguntasuna ematen da, eta fase horretan, koordinatzaile-hezitzaile batek egon beharko du, kontratatzen diren pertsonei segimendua eta ikuskapena egiteko. Lan hori, bestalde, pertsona horiek erroldatuta dauden udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan egin beharko dute.

*3. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira jarduera guzti hauek hartzen dituzten egitasmoak:

a) Hasierako prestakuntza: enpleguarekin lotutako ohitura pertsonal eta sozialak zein gaitasun sozialak lantzeko prestakuntza-jarduerak; taldeka, gutxienez 20 ordukoak eta gehienez 30 ordukoak. Prestakuntza aldi hau lan-kontratua formalizatu baino lehenago egin beharko da.

b) Lanerako kontratuak egitea, honako betebeharrak dituztela:

– Programaren babesean egindako lan-kontratuak ezingo dira izan enplegua eskaintzen duen entitateko ohiko jarduerak betetzeko, ez eta lan arruntetan ari diren langileak ordezteko ere.

– Lan-kontratuak izan beharko dute.

– Iraupena: 6 hilabete, lanaldi partzialean, astean 30 ordu; laguntzako prestakuntza, gaitasunen balantzea eta laneratzeko programa barne, artikulu honetako c) eta e) idatz-zatietan jasota ageri diren bezala.

– Soldatak: lanerako kontratuak lanbide arteko gutxieneko soldata aplikatuko du, lanaldi partzialarengatik dagokion zatian.

– Egitekoak: lanpostuan egin beharrekoek derrigor egon behar dute loturik onura sozialeko enpleguaren kontzeptuarekin, dekretu honetako 1.4. artikuluan adierazikoaren arabera.

c) Laguntzako prestakuntza: enpleguarekin lotutako ohitura pertsonal eta sozialak zein gaitasun sozialak indartzeko banakako jarduerak; batez beste, ordubete astean, kontratazioak irauten duen aldian. Jarduera horien ordutegiarekin malgutasunez joka daiteke.

d) Lanerako prestakuntza: langilea arituko den onura sozialeko lanpostuarekin lotutako gaitasunen inguruko lanbide-koalifikaziorako jarduerak; kontratazioaren aurretik nahiz kontratazioaren aldian egingo dira.

d) Para la impartición de las acciones de formación ocupacional previstas en el artículo 3.1 letra d) podrán utilizar sus propios recursos o contar con la colaboración de entidades de formación.

e) Para el desarrollo de la fase de contratación, deberán contar con capacidad organizativa para la ocupación y supervisión efectiva de las personas contratadas.

f) Para la fase de tutoría y acompañamiento que se realiza durante el desarrollo de la fase de contratación, deberá contar con la figura de un coordinador-educador que, en colaboración con los servicios sociales de base de los municipios en los que estén empadronadas las personas contratadas, realice el seguimiento y supervisión de las mismas.

*Artículo 3.*– Acciones subvencionables.

1.– Serán subvencionables aquellos proyectos que contemplen todas y cada una de las siguientes acciones:

a) Formación inicial: Acciones de formación en hábitos socio-personales y habilidades sociales relacionados con la ocupación laboral, con una duración mínima de 20 horas y una duración máxima de 30 horas, en procesos grupales. Esta formación se desarrollará con carácter previo a la formalización del contrato de trabajo.

b) Contratos de trabajo, que cumplan con los siguientes requisitos:

– Los contratos realizados en ningún caso podrán suponer cobertura de actividades normales o sustitución de personal al servicio de las tareas habituales de la entidad oferente del empleo.

– Serán contratos laborales.

– Duración: por un periodo de 6 meses de duración a tiempo parcial, de 30 horas semanales, incluida la Formación de apoyo, el Balance de competencias y el Programa de Inserción Laboral, tal y como quedan recogidos en los apartados c) y e) de este artículo.

– Retribución salarial: El contrato de trabajo aplicará el salario mínimo interprofesional en la parte que corresponda por la dedicación parcial.

– Funciones a desarrollar en el puesto de trabajo: los contenidos del puesto de trabajo tienen que estar necesariamente vinculados con el concepto de empleo de utilidad social definido en el artículo 1.4 del presente Decreto.

c) Formación de apoyo: acciones individuales de refuerzo personal en hábitos socio-personales y desarrollo de habilidades sociales relacionados con la ocupación laboral, a razón de una media de 1 hora semanal durante la fase que dure la contratación. La distribución horaria de dichas acciones se realizará de forma flexible.

d) Formación Ocupacional: acciones de cualificación profesional en competencias relacionadas con el empleo de utilidad social que desarrollará y que se realizarán antes o durante la fase de contratación. Los grupos se

Taldeak udalen edo eskualdeen arabera eratuko dira, eta 8 kide izango dute gutxienez.

e) Prozesu guztian bereganatutako lanerako eta gizarterako gaitasunen balantzea egitea, eta Auzolan programa uztean betetzeko laneratze-programa bat zehaztea, haren gaitasun, interes eta motibazioen araberakoa: pertsona hori lanpostua aktiboki bilatzera bultzatzeko jarduerak, Auzolan programa uztean egingo duen gizarteratzeko ibilbide pertsonal batetik abiatuta; ibilbide horrek aldi berean bil ditzake lanbide eta lanerako heziketa jarduerak, lan-praktika aldiak, enplegurako motibatze saioak, lanbide-orientazio jarduerak, laneko eta prestakuntzako egitarauak, eta abar. Balantzea egiteko eta egitaraua osatzeko jarduerok, gutxienez, 10 ordu iraungo dute eta, gehienez, 20 ordu. Taldeka egingo dira, kontratazio aldiko azken asteetan.

f) Proiektu bakoitzean kontratatutako pertsona guztien tutoretza eta laguntasuna, lan-jarduerak irauten duen bitartean; taldea koordinatzeaz arduratu beharko da.

Prozesu guztian erreferentziako pertsona bat egongo da, obrako arduradunarekin koordinatuta lan eginez, prozesuak dirauen artean taldeko partaide guztiei lagundu diezaien.

Prozesu guztian lortutako gaitasun sozio-profesionalei buruzko balantze bat egingo du, eta hori oinarrizko gizarte-langileari emango dio. Eta balantzetik abiatuta, profesional horrek bere eskuhartzea honako hauetara bideratuko du: gizarteratze-enpresetara, lanerako prestakuntzara, autoenplegura, lan-merkatu normalizatura edo beste jarduera batzuetara.

2.– Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betez, aurreko paragrafoan azaldutako ekintzak dituzten proiektuek ekintza positiboko neurriak izan beharko dituzte, pertsona orok Auzolan programara sartzeko aukera izan dezan.

*4. artikulua*.– Jardueren onuradunak.

1.– Dekretu honen babesean diruz lagundutako jardueren hartzaile izan daitezke baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, baldin eta udalen batekin gizarteratzeko hitzarmen bat izenpetuta badute. Hona zehaztuta:

a) Oinarrizko errentaren titularrak.

b) Oinarrizko errentaren titularren bizikidetzako unitate ekonomiko independenteko kideak.

c) Baztertuta geratzeko arriskuan dagoen edonor, baldin eta urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretuaren babesean gizarteratzeko hitzarmenik sinatu badu; hitzarme-

constituirán a nivel local y/o comarcal con un mínimo de 8 personas.

e) Balance de competencias socio-profesionales adquiridas durante todo el proceso y concreción de un Programa de inserción laboral a desarrollar tras la salida del Programa AUZOLAN ajustado a sus capacidades, intereses y motivaciones: acciones encaminadas a movilizar a la persona hacia la búsqueda activa de empleo, a partir de la concreción de un itinerario integral de inserción personal que irá desarrollando tras la salida del programa AUZOLAN y que puede combinar en el tiempo acciones de formación profesional ocupacional, prácticas laborales, acciones de motivación hacia el empleo, acciones de orientación profesional, programas de empleo-formación, etc. Estas acciones de balance y elaboración del programa tendrán una duración mínima de 10 horas y máxima de 20 horas y se realizará en procesos grupales en las últimas semanas de duración de la fase de contratación.

f) Proceso de tutoría y acompañamiento del conjunto de las personas contratadas en cada uno de los proyectos durante toda la fase de realización de la actividad laboral, responsabilizándose de la coordinación del grupo.

Durante todo el proceso existirá una persona de referencia que desarrollará una función de coordinación con el responsable /encargado de obra y una función de apoyo y acompañamiento durante todo el proceso de trabajo de cada uno de los integrantes del grupo.

Dicha persona de referencia realizará el Balance de competencias socio-profesionales adquiridas durante todo el proceso que devolverá al Trabajador Social de Base, para que a partir del mismo, dicho profesional, reoriente su intervención profesional bien hacia acciones de empresas de inserción, la formación ocupacional, el autoempleo, el mercado normalizado de trabajo u otras actividades.

2.– Los proyectos que integren las acciones descritas en el párrafo anterior, deberán contener las medidas de acción positiva necesarias que permitan el acceso de todas las personas al Programa AUZOLAN, en cumplimiento de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad.

*Artículo 4*.– Personas destinatarias de las acciones.

1.– Podrán ser destinatarias de las acciones subvencionadas al amparo del presente Decreto las personas en situación o riesgo de exclusión social que tengan suscrito un Convenio de Inserción con los Ayuntamientos incluidas en cualquiera de los siguientes supuestos:

a) Titulares del Renta Básica.

b) Miembros de la unidad de convivencia del titular de la Renta Básica.

c) Personas en riesgo de exclusión social que suscriban Convenios de Inserción a tenor de lo establecido en el Decreto 1/2000, de 11 de enero, en los que se con-

nean, epe ertain edo luzera begira egindako eskuhartze edo jarduera espezifikoren bat zehaztu beharko da.

2.– Horiek onuradun izango dira, baldin eta:

a) Oreka pertsonala eskuratzeko jarduerarik, osasun tratamendu espezifikorik, desintoxikatze edo aztura kentzeko jarduera espezifikorik behar ez badute.

b) Denbora luzea langabezian daramaten eta premia-egoeran dauden berrogeita bost urtetik gorakoak laneratzeko programan parte hartzen ari ez badira; programa hori Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak arautuko du.

c) Lan-merkatu arruntean zuzenean sartzeko gaitasunik ez badute.

d) Auzolan programan parte hartzeko egokiak direla dioen txostena badute, kasuan kasuko oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta enplegurako orientazio zerbitzuak emana.

*5. artikulua*.– Hautagaien hautaketa.

Programan parte hartuko duten hautagaiak honela aukeratuko dira:

a) Dekretu honetako diru-laguntzen entitate onuradunek oinarrizko gizarte-zerbitzuetara joko dute dekretu honen arabera onartu zaizkien enpleguetarako hautagaiak eskatzera.

b) Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalek Auzolan programarako hautagaiak aukeratuko dituzte, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean, artikulu horretako 1. paragrafoan jarritako hurrenkerari jarraituz.

c) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren titularren artean, lehentasun-irizpide hauek erabiliko dira:

1.– Antzinatasuna: zenbat denbora daraman oinarrizko errenta jasotzen.

2.– Oinarrizko errentaren titularrak dituen zuzeneko zama familiarrak.

3.– Guraso bakarreko familia batekoa izatea.

d) Kasu guztietan, kontuan hartuko da:

1.– Zenbateraino egokitzen diren hautagaiaren profil pertsonal eta profesionala eta entitate kontratatzaileak eskainitako enpleguaren profila. Hori neurtzeko, oinarrizko gizarte-zerbitzuek enplegurako orientazio-zerbitzu baten laguntza jaso beharko dute. Zerbitzu bietako profesionalek, egiten dituzten ekarpenen bidez, Auzolan programarako hautagai izateko behar den profila zehaztuko dute.

2.– Hautagaiaren profila bat ez etortzea honako hauekin: denbora luzea langabezian daramaten eta premia-egoeran dauden berrogeita bost urtetik gorakoak laneratzeko programan parte hartzeko behar den profi-

crete una intervención o actuación específica de inserción enfocada en el medio y largo plazo.

2.– Dichos destinatarios podrán serlo siempre que:

a) no precisen acciones encaminadas a lograr la estabilidad personal, ni tratamientos médicos especializados, ni acciones específicas de desintoxicación o deshabituación.

b) no participen en el programa de inserción laboral para los trabajadores desempleados de larga duración, en situación de necesidad, mayores de cuarenta y cinco años que al efecto resulte de la regulación del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

c) no tengan una capacidad de inserción directa en el mercado laboral ordinario.

d) cuenten con un informe favorable de idoneidad para su participación en el programa AUZOLAN elaborado por el Servicio Social de Base y el Servicio de Orientación para el Empleo correspondiente.

*Artículo 5*.– Selección de las personas candidatas.

El proceso de selección de las personas candidatas a participar en el programa se realizará del modo siguiente:

a) Las entidades beneficiarias de las ayudas a que se refiere este Decreto acudirán a los Servicios Sociales de Base para solicitar candidatos/as para los empleos que le resulten aprobados por este Decreto.

b) Los/las profesionales de los Servicios Sociales de Base seleccionarán a las personas candidatas a formar parte en el programa AUZOLAN, de entre las personas que cumplan con los requisitos establecidos en el artículo 4, aplicando el orden establecido en su apartado 1.

c) Así mismo, dentro del colectivo de titulares de la Renta Básica se aplicarán los siguientes criterios de prioridad:

1.– Antigüedad o tiempo de permanencia percibiendo la Renta Básica.

2.– Cargas familiares directas que soporta el/la titular de la Renta Básica.

3.– Pertenecer a una familia monoparental.

d) En todos los casos se valorará:

1.– El grado de idoneidad del perfil personal-profesional de la persona candidata con el perfil del empleo ofertado por la entidad contratante. Para esta labor los Servicios Sociales de Base deberán contar con la ayuda profesional del Servicio de Orientación para el empleo correspondiente. Las aportaciones de los profesionales de ambos servicios dibujarán el perfil idóneo de las personas candidatas al programa AUZOLAN.

2.– La no convergencia del perfil de la persona candidata con aquel susceptible de ser acogido al programa de inserción laboral para los trabajadores desempleados de larga duración, en situación de necesidad, ma-

larekin (programa hori Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak arautuko du).

*6. artikulua.–* Proiektuak lehenesteko eta laguntzak esleitzeko irizpideak.

Irizpide hauek erabiliko dira proiektuen artean lehentasunak ezartzeko:

a) Aurkeztutako proiektuaren kalitatea, bai alderdi metodologiko guztiak eta hartzaileen segimendua integratzeari dagokionez, bai prestakuntza prozesu guztiak eta lan-esperientzia aldia integratzeari dagokionez (gehienezko puntuazio osoaren %40).

b) Eskainitako enpleguak zenbateraino egokitzen diren onuradun izan daitezkeenen egoera pertsonal zein sozialera, bai eta haiek laneratzeko dituzten beharretara ere (gehienezko puntuazio osoaren %40).

c) Oinarrizko ekiko eta enplegurako orientazio zerbitzuekiko koordinazio proposamenaren egokitasuna (gehienezko puntuazio osoaren %20).

*7. artikulua.–* Betebeharrak.

Entitate onuradunak betebehar hauek izango ditu:

a) Men egitea bai laguntza eman duen entitatearen egiaztatze-jardueren aurrean, bai Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrol-jardueren aurrean ere.

b) Laguntza eman duen entitateari jakinaraztea edozein administraziotatik edo entitate publiko zein pribatutatik helburu bererako lortutako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak.

c) Laguntza eman duen entitateari jakinaraztea diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabehera objektibo zein subjektibotan izandako edozein aldaketa.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko edo antzeko diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapideetan dagoen edozein prozedura —dirua itzultzekoa zein zehapenekoa— jakinaraztea.

*8. artikulua.–* Diru-laguntzaren zenbatekoa eta kopuruak zehazteko irizpideak.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira, ondoren zehazten diren kontzeptuetarako onartutako aurrekontuaren %100 arte:

a) Langile-gastuak, Gizarte Segurantzarekikoak kenduta: Auzolan proiektuko ekintzen hartzaileen soldatak; lanaldi partzialaz, asteko 30 orduz, sei hilabetez kontratatuak izan beharko dute; lanbidearteko gutxieneko soldata ordainduko da, lanaldi partzialari dagokion zatiaz.

yores de cuarenta y cinco años, que al efecto resulte de la regulación del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

*Artículo 6.–* Criterios de priorización de los proyectos y de adjudicación de las ayudas.

La priorización de los proyectos se realizará en base a los siguientes criterios:

a) Calidad del proyecto presentado, en lo relativo a la integración de todos sus aspectos metodológicos y de seguimiento de las personas destinatarias así como de los contenidos de los diferentes procesos formativos con la fase de experiencia laboral (hasta un 40% de la puntuación total máxima).

b) Grado de adecuación de los empleos ofertados a la situación personal y social del colectivo potencialmente destinatario, así como a sus necesidades para la inserción laboral (hasta un 40% de la puntuación total máxima).

c) Idoneidad de la propuesta de coordinación con los Servicios Sociales de Base y los Servicios de Orientación para el Empleo (hasta un 20% de la puntuación total máxima).

*Artículo 7.–* Obligaciones.

Serán obligaciones de la entidad beneficiaria:

a) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por la entidad concedente y a las de control de la Oficina de Control Económico y del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

b) Comunicar a la entidad concedente la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedente de cualquier Administración o ente tanto público como privado.

c) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

d) Comunicar los procedimientos de reintegro o sancionadores que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se hallen aún en tramitación.

*Artículo 8.–* Cuantía y criterios de cuantificación de la subvención.

Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido de hasta un 100% del presupuesto que resulte aprobado por los siguientes conceptos de gasto:

a) Los gastos de personal, excluidos los de Seguridad Social, derivados de la retribución salarial de las personas destinatarias de las acciones del proyecto AUZOLAN que hayan sido contratadas por un periodo de 6 meses de duración a tiempo parcial, de 30 horas semanales, aplicando el salario mínimo interprofesional en la parte que corresponda por la dedicación parcial.

b) Gastu arruntak eta langileenak eta 2.2 c) artikuluan aipatzen den entitate homologatua kontratatzetik sortutakoak. Hasierako prestakuntzak, laguntzako prestakuntzak, gaitasun sozio-profesionalen balantzeak eta tutoretzak eta laguntasunak sortutakoak izango dira (3.1 artikuluko a), c), e) eta f) idatz-zatietan azaldu dira). Dena den, onartu egin beharko dira. Lokalak erabiltzetik, prestakuntza-ekintzak kudeatu eta administratzetik, komunikazioetatik eta material suntsigarria, didaktikoa eta bulegokoa erostetik sortutakoa hartuko da gastu arruntzat.

Dekretu honen 3.1 artikuluko a), c), e) eta f) idatz-zatietan adierazitako gastuetarako, gehienez 13.450 euroko muga ezartzen da onartzen den proiektu bakoitzeko.

c) Parte-hartzaileak bizi diren herritik proiektua egiten den lekura arteko joan-etorriak, baldin eta egunero egiten den distantzia 10 kilometrotik gorakoa bada. Garraio publikoa erabiltzean sortutako gastuak ordainduko dira, gehienez 0,15 euro kilometroko, eta autopista-gastuak, baldin eta garraio publikoa ezin erabiltzeagatik norbere autoa erabili behar bada. Dena den, gastua justifikatu egin beharko da.

d) 3. artikuluko d) idatz-zatian deskribatzen diren jarduerei zuzenean egozteko moduko gastu arruntak eta, halakorik bada, 2.2. d) artikuluan aipatzen den prestakuntza-entitatea kontratatzeko gastuak. Gastu horiek onartu egin beharko dira, eta gastu-kontzeptu hauetakoren bat izan beharko dute:

1.– Lanerako prestakuntzako ikastaroen prestakuntza.

2.– Ikastaroen funtzionamendua eta kudeaketa (irakasleak, material didaktiko eta suntsigarria, administrazioa eta gastu orokorrak, antolaketa eta kudeaketa).

*9. artikulua*.– Eskabideak eta dokumentazioa.

